hitzaurrea

HAUSNARKETA eta EZTABAIDA irekia antolatu dugu liburuxka honetan lantzen diren gaien inguruan

EGUNA: martxoak 7, astelehena
ORDUA: 17:30. TOKIA: Donostia
PREZIOA: doan
* Parte hartzeko izena eman behar da ***hikhasi@hikhasi.eus*** helbidera idatzita edota **943 371 408** telefono zenbakira deituta.

Hezkuntzaren arloan lanean ari garen hainbat eragile, irakasle eta bestelako profesional arduratuta gaude azken urteetan nagusitzen ari diren zenbait balio eta jarrerarekin. Indibidualismoa, norberekoikeria, besteak baino gehiago izateko grina, desinteresa, pasibotasuna, bortizkeria, iruzurkeria… egunero gure inguruan ikusten ditugun jokabideak dira.

Familiaren, eskolaren, kaleko bizitzaren nahiz komunikabideen bitartez zer da gure haurrek eta gazteek jasotzen eta esperimentatzen dutena? Zer ikasten dute? Zein balio, jarrera eta jokabide barneratzen dituzte?

Iruditzen zaigu gaur egun transmititzen diren balio nagusien inguruan gogoeta egiteak merezi duela. Ez inori errua botatzeko eta inoren miseriak azaleratzeko, baizik eta nolakoak izan nahi dugun eta zer-nolako gizartetan bizi nahi dugun erabakitzeko.

Egiteko horretan hondar ale bat jartzeko xedez, eskuartean duzun Juan Inazio Hartsuagaren ***Gure nortasuna*** hausnarketarako materiala argitaratu du Hik Hasik. Uste baitugu ekimena, talde-izana, zorroztasuna, askatasuna, duintasuna, eskuzabaltasuna, berdintasuna… eta beste hainbat balio bultzatzea, gure esku dagoela. On egin!

ATARIKOA

Herri-nortasunak badirenik ukatu egiten dute askok. Egokia dirudi, beraz, zerbait esatea auzi horretaz beste ezer baino lehen. Izan ere, herri-nortasunik ez balego, alferrekoa litzateke-eta hemen idatzita dagoen guztia.

Herri-nortasuna ukatzea zuzentasun politikoaren ondorioa da, azterketa enpiriko batena baino gehiago. Arrazari eta arrazismoari lotuta formulatu zen XIX. mendean, eta germaniar izena eman zitzaion, ***Volksgeist*** zorionekoa, alegia. II. Mundu Gerraren amaieraren ostean, traste zaharren kutxan gorderik geratu zen. Hantxe dirau, neurri handi batean, Jakintzaren tenpluetan sartzeko debekuak jota. Horretaz zertxobait hizketan hasi gara azken aldian kalean agian, baina ez da inoiz falta, tabuaren errespetua aitzakiatzat hartuta, hizketan hasi orduko bere izana bera ere ukatzen duenik, sarritan jarrera aurrerakoia balitz bezala hartuta.

Halere, ez dago taburik eta aurreiritzirik gabe datuak bere gordinean aztertzea baino gauza aurrerakoiagorik. Eta, hori egiten dugunean, ikusten dugu alde nabarmenak azaltzen direla hainbat erakusgarritan, eremu geopolitiko berekoak diren eta antzeko aberastasun maila eta lege-egiturak dituzten zenbait estaturen artean. **Ideia eta balioen bestelako historia laburra** idazlaneko bigarren zatian daude bilduta horien inguruko hainbat eta hainbat adibide. Bistan da Espainia eta Italia ez bezalakoak direla Suedia, Danimarka edo Alemania. Herri-nortasunaren eraginetik ulertu eta bideratzen ditut nik horien arteko aldeak, eta herri-nortasuna badenik ukatzen duenak beste argibideren bat asmatu beharko du, errealitatearen ezeztatze hutsean geratu nahi ez badu. Datuak egoskorrak baitira.

Noski, herri-nortasuna ezin dugu ulertu XIX. mendeko ***volksgeist*** haren hein berean. Batetik, era okerrean formulaturik zegoelako berez, eta, bestetik, gaurko gizarteek orduko haiekin zerikusi handirik ez dutelako. Soberan ziren lehenago, eta zer esanik ez gaur egun, kontzeptuaren kutsu absolutua eta arrazista: herri-nortasuna ez da bakarra; ez da absolutua; ez da herritar guztien ezaugarria; ez da aldaezina, eta, noski, ez dago gizabanakoaren arrazari lotuta. Herri-nortasuna ***desideratum*** bat da, gehienbat ereduen mailakoa; erlatiboa da; aldaketak nozitzen ditu, eta estatistiketan sumatzen da. Herri batean indarrean dauden eredu, ideia, balio, jarrera eta jokabideek osatzen dute herri-nortasuna.

Aurrerago jo baino lehen, hona hemen zehaztapen batzuk hiztegiari dagokionez, idazlan honetan hainbat kontzeptuk zer esan nahi duten argitzeko. "Herria" sustrai etnikoa duen multzoari deritzot, alegia, berezko hizkuntza eta nortasuna dituen giza multzoari. Ez dut esaten talde etnikoa denik, sustrai etnikoa duen taldea baizik, kultura-aniztasuna duen gaur egungo gizartean herriak ere etnia anitzeko bihurtu direlako. Esate baterako, beltz euskaltzaleak ditugu gure artean gaur egun, euskal tradizioko balio eta jokabideak zeharo barneratuta dituztenak. Horiek ere "herri" kontzeptuan sartzen dira. Bestalde, indoeuropar kulturak sortutako "populu" kontzeptua dugu. Populua, indoeuropar tradizio kontzeptualean, deserroturiko herriez osatzen den gizaki multzo hiritarra da. Berezko hizkuntza galdutakoak, berezko ohiturak eta balioak galdutakoak, estatuaren hizkuntzaz mintzo dira, eta erregearen maiestateak eta estatuaren legeen egokitasun jakintsuak zizelkatzen dute haien nortasuna. Azkenik, errealitateko argazkian topatzen dugunari esaten diogu "gizartea" hemen. Gizartea herri bakarrekoa edo herri anitzekoa izan daiteke; gizarte batzuk "herri" kontzeptutik gertuago egon daitezke, eta beste batzuk,

berriz, "populu"tik hurbilago. Gizarte guztiak populu huts balira, aberastasun maila, hezkuntza-sistema eta lege-egitura antzekoa duten estatu guztiak oso elkarren antzekoak izango lirateke. Hori betetzen ez bada, ordea, herrien eragina sumatuko dugu gizarteen barnean. Adibide bat baino ez jartzeagatik, herri-nortasun ezberdinak daudela egiaztatzeko nahikoa da konparatzea estatu batzuetako eta besteetako ordainik gabeko borondatezko lan-tasak eta irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuen kopuruak.

Herri-nortasunak badirela onartzen badugu eta, halaber, herri-nortasunok gizartearen nortasunean eragiten dutela onartzen badugu, has gaitezke herri-nortasun horiek zer-nolakoak diren aztertzen.

Lehenik eta behin, begi-bistakoa den arren errepikatzea merezi duen zerbaitekin hasiko gara. Herri-nortasunak sustrai etnikoa duen arren, etniaz harago zabaltzen da gaur egungo etnia anitzeko herrietan. Turkiarren seme-alaba diren gazte alemaniar beltzaranak batez beste zorrotzagoak izango dira ustelkeria gaitzesterakoan, flandestar askazikoak diren sevillar begi-urdinak baino, batzuen eta besteen gizartean auzi horretaz dauden iritzi eta jarrerei erreparatuz gero.

Bestetik, gorago esan dugun bezala, herri-nortasuna ezin da hartu zentzu absolutuan. Herri baten nortasuna osatzen duten eredu, balio, jarrera eta jokabideak ez dira beti berberak; aldatu egin daitezke denborarekin, eta herri horretako guztiak ez dira, berez, nortasun horren erakusgarri, herritartasun hutsak eraginda. Herri-nortasuna erlatiboa da. Ez da berezkoa. Ez da betirakoa. Ez da debaldekoa. Trakestu egin daiteke, eta trakestu egiten da. Landu egin behar da. Eutsi egin behar zaio. Ez da beti eta denetarako egokia. Zizelkatu egin daiteke, eta zizelkatu egin behar da, garaiaren eta inguruaren arabera, ahalik eta eragin onuragarriena irits dezan.

Herri-nortasuna sagarrondo bat bezalakoa da. Inausiz ematen zaio eitea. Ez beti berdin. Inguruaren, eguraldiaren eta ustiatzeko eraren arabera, honelako edo halako eitea ematen zaio. Zenbat eguzki jasotzen duen dagoen lekuan, sagarrak eskuz ala makinaz bilduko diren, era batera ala bestera inausten da, eite bat ala bestea har dezan. Eta ezin da behin bakarrik inausi eta bertan utzi. Urtero errepikatu behar da lana, eiterik ederreneko sagarrondoa ere itsustu eta trakestu egingo delako ezinbestean, bere horretan luzaroan utziz gero.



Aitzin iragarpen argigarri hauen ondoren, gatozen, beraz, idazlan honen gaia plazaratzera: gure nortasuna. Ba ote dugu nortasun bat? Ezezkoan, hasi orduko amaituko da gure bidaia. Baiezkoan, zer-nolakoa da gure nortasun hori? Zein dira berorren ezaugarri nagusiak? Nondik datozkigu? Egokiak al dira bizi garen garairako? Onuragarriak dira ala kalterako dira? Galdera horiei eta beste batzuei erantzuten saiatuko gara. Baina, hasi aurretik, zorretan ditugu azken zehaztapen batzuk. Nori buruz ari gara "gure" diogunero?

Euskal nortasunaz ari gara, noski, baina zer da "euskal", eta nor ari gara sartzen deitura horren hegapean? (Idazlan hau inoiz gaztelaniara itzultzen bada, are korapilatsuago bilakatuko da oraindik hiztegia). Euskal Herria deituriko eremuan bizi den gizartea hartuko dugu, batetik; ***euskalbera*** direnen multzoa bestetik (***euskalberagoa***); eta antropologiatik eta mitologiatik erauz daitekeen balio eta eredu multzoa, azkenik; hasieran egin dugun definizioaren arabera, herri-nortasuna bi planotan azter baiteke, hots, jendearen jarrera eta jokabideen planoan, eta jendeak bere buruari jartzen dizkion balio eta

ereduen planoan.

Euskal gizartea diogunean, aintzat hartzen ditugu Lizarrako senegaldarrak edota gaztelar etorkinen ondorengo Bilboko erdaltzaleak ere; Euskal Herriko eremu administratibo guztietan bizi den jende guztia, alegia. ***Euskalberagoa*** aipatzerakoan, berriz, euskal izaera maite duen marokoarra edo umeak euskaraz hazten dituen UPNzalea ere tartean dira, esate baterako; alegia, euskara eta euskal kultura tradizionalarekiko nolabaiteko atxikimendua edo hobespen-sentimendua duen edonor, zeinahi izanik ere horien jatorria eta aukera edo aldekotasun politikoak. Eta, azkenik, antropologiaren eta mitologiaren azterketatik erauzten dugun eredu multzoaz diharduguneanean, zahar eta jatorrenak zein diren erakutsiko dugu, barne-koherentziari eusten diotenak, alegia, kultura arrotzen eraginez gerora txertatutakoak ere bai baitira.

EUSKAL NORTASUN TEORIKOA

Euskal nortasunik ba ote dagoen galdetzerakoan, beraz, hiru galdera egin beharko genizkioke geure buruari:

1. Euskal Herrian bizi direnek ba ote dute besteena ez bezalako nortasun bat?

2. ***Euskalbera*** direnen multzokoek ba ote dute besteena ez bezalako nortasun bat?

3. Aurki ote daitezke besteenak ez bezalako balio eta ereduak euskal antropologia eta mitologia zaharretan?

Hasierako bi galderek arazo berez zamatzen gaituzte. Batetik, mikrobioak ikusteko mikroskopioa behar den bezala, tresna bat behar da gizarte baten nortasuna antzemateko: estatistika. Eta, bestetik, oraindik ez dugu definitu euskal nortasuna zer den, eta, beraz, ezin izango genuke galdetegi bat prestatu, estatistika-erakunderen bat laguntzeko prest izango bagenu ere.

Gatozen estatistikarena azaltzera. Eman dezagun alemanak italiarrak baino solidarioagoak direla hartzen dugula hipotesitzat. Egia balitz ere, horrek ez luke esan nahi izango aleman guztiak solidarioak direla, eta italiarren artetik, berriz, inor ez. Hipotesia egia balitz, horrelako zerbait azalduko litzateke (datuak zeharo asmatuz): alemaniarren artean, % 24k odola ematen du, eta italiarren artean, % 19k; eta alemaniarrek soldataren % 5 ematen dute GKEentzat, eta italiarrek, % 3,8. Maila horretakoa da herrinortasunaren adierazpidea.

Definizioari dagokionez, berriz, bistan da nortasun jakin baten osagarriak zein diren azaldu behar dugula hipotesi gisa, estatistikak egiten hasterako. Zer aztertu behar dugu euskal gizartean eta ***euskalberago*** multzoan, euskal nortasunik ba ote dagoen ikusteko? Horretarako, ustezko balio eta eredu bereizgarriak zein diren aztertu behar dugu lehenengo, eta, gero, horien neurria eman dezaketen erakusgarriak zehaztu behar ditugu. Beraz, atzekoz aurrera baino ezin diegu erantzun egindako galderei. Hel diezaiogun, bada, hirugarrenari: Aurki ote daitezke besteenak ez bezalako balio eta eredu bereizgarriak euskal antropologia eta mitologia zaharretan?

Lantxo honen helburua euskal nortasuna era sinple eta labur batean definitzea denez, ez gara hemen luzatuko lantxo horretan aipatuko ditugun eredu eta balioen zuriketan. Horretan sakondu nahi duenak honako bi esteka hauetan aurki ditzake zuribideak: **Ideia eta balioen bestelako historia laburra** eta **Euskal mitologia konparatua. Jentilen akabera.**

Enborra eta oinarrizko egitura

Antropologiaren eta mitologiaren azterketatik ateratzen denez, hiru adar nagusi ditu euskal nortasunak: ekimena, zintzotasuna, talde izana. Horiek dira enborretik zuzenean ateratzen direnak, eta horietatik sortzen dira gero gainerako ezaugarriak. Hirurak dira Paleolito garaitik hasi eta duela hiru mila urte inguru indoeuropar herriak gurera heldu bitartean euskal nortasunaren eitea etengabe eratu duten balio nagusi oinarrizkoak.

Euskara ipini dut enborrean, eredu, balio edo ideia bat ez izan arren, haien iraupenari oso estu lotzen zaielako eta, bata galduz gero,

besteek ere larri sufrituko luketelako. Eta, dena den, euskal nortasunaz ari bagara, ez dagoelako euskararik gabeko euskal nortasunik. Bego, bada, oinarrian, zuhaitz osoaren euskarri.

EKIMENA: ekimena zeharo ezaugarri zabaldua da gizarte primitibo gehienetan. Gizarte horietan, ezer ez dator berez. Zerbait nahi edo behar baduzu, ekin egin behar diozu, hura eskuratzeko. Jan nahi baduzu, janari bila irten behar duzu, ehizara ala fruituak biltzera. Zauden tokian eserita geratzen bazara, inork ez dizkizu ekarriko. Gizarte-bizitza antolatzeko edo mundua irudikatzeko, ez dizu eskulibururik erakutsiko inork. Zerorrek asmatu behar duzu (talde modura), eta zerorrek aldatu, egokia ez bada edo gauzak ondo ez badoaz. Eskuarki txikiak izan ohi diren giza talde horietan, aurrekoek utzitako ohitura multzoa da erreferentzia bakarra. Hari begiratzen diote, eta hura eraldatzen dute behar denean, goitik edo kanpotik zer etorriko zaien begira edo zain egon gabe.

Ez dakigu ezer asko Bizkaiko golkoaren ondoan Paleolito garaian bizi izan ziren ehiztari biltzaileez, baina seguru esan dezakegu, halere, ekimenaren jabe izatea zela haien ezaugarri nagusietako bat. Hipotesi hori baieztatzera dator apur bat geroago eremu berean aurkituko dugun nekazari neolitikoaren izaera. Izaera horri buruz, dezente gehiago dakigu, batik bat mitologian geratu direlako haren arrastoak; eta, zalantzarik gabe, esan dezakegu euskal nekazarien talde neolitikoak ekimenaren jabe zirela, etengabeko ekintzaileak zirela.

Giza talde neolitikoak bere burua antolatzen du; gizarte-bizitzarako arauak ezartzen ditu, eta erlijio-bizitzaren erituak asmatu eta ospatzen ditu, berez eta goiko edo kanpoko inoren gidaritzapean jardun gabe. Nekazarien gizarte neolitikoak ez du jainkorik, "jainko" hitzaren adiera modernoan. Naturaren agerkari indartsu eta beldurgarrienak ez dira jainko haserre baten eskuan dauden armak, berezko eta noranahiko gertakari naturalak baizik; eta, horregatik, lehortea denean edo oinaztarria ageri denean, horiek nola kontrolatu asmatzen saiatzen da, zer bekatu egin ote duen gogoetan hasi ordez.

Azken mila urtean kristau bilakatu arren, hagitz nabarmenak izan dira bizitza erlijiosoa taldean eta era burujabean antolatzeko joerak euskal nekazarien artean, duela gutxi arte. Eginkizun erritual nagusia hildakoen zaintza izan ohi da, mezaren gainetik; herriaren ardura izan ohi da, urtero apaizari gogoraraziz Mariren aurkako konjuruak egin behar dituela, hura bizi den mendietara igoz; santu-kutxak

etxez etxe ibili ohi dira limosnabiltzaile, eta kofradiek beren ospakizunak antolatu ohi dituzte. Guztia, elizaren inguruan, noski, baina ekimena eurentzat gordez, elizari eman gabe. Erlijioaren esparrutik at ere, etengabe eta nonahi aurkituko ditugu ekimenaren adierazgarriak. Eguneroko hizkeran, "nork bere babak eltzetik atera beharra" edo "egon hadi lo eta jango duk mehe" bezalako esaerek ekimenaren beharra eta egunerokotasuna gogorarazten digute. Hitza bera aipatzen duten goiburu ezagunak ere aurkituko ditugu, "ezina ekinez egina" edota "ekin eta jarrai" goiburuak, adibidez.

Ekimenak lana adierazten du, baina baita zerbait gehiago ere. Ez du adierazten nolanahiko lana, kanpoko inork agindu gabekoa baizik. Horregatik, ez dugu ezaugarri gisa "langiletasuna" aipatu hemen, anbiguoa delako, eta berdin eslei dakiokeelako besteen agindupean ekimen apurrik gabe diharduenari. Kotoia biltzen jarduten zuten Alabamako esklaboak langile ziren, bai eta lantegietan erreleboan dabiltzan guztiak ere. Baina, ekinean dabiltzan guztiak langile badira ere, langile guztiak ez dira ekimenaren eredu. Euskal kultura tradizionalean ageri den balioa biribilago definitzen du "ekimen" hitzak "langiletasun" hitzak baino, aipatu bi ezaugarriak biltzen dituelako, hots, lanari estu lotzea eta inork esan beharrik gabe lotzea ere. "Beti bada zer eginik" esaerak adierazten du ezin hobeki ekimena zer den.

ZINTZOTASUNA: sarritan onberatasunarekin nahasten bada ere, zentzurik jatorrenean dakargu hona, hots, zinari, zuzentasunari eta egiari lotzen zaion zentzuan. Antropologiak erakusten digu zintzotasuna hautapen kultural bat izan zela une jakin batean; zintzotasuna gizartearen oinarrian jartzea erabaki zuten haiek aurrera egin zutela, beste batzuek baino hobeto, eta, hori dela eta, eredua arrakastaz zabaldu zela han eta hemen, eremu eurasiar osoan zehar. Hori guztia Paleolito garaian gertatu zen, eta zehatz-mehatz azalduta dago **Ideia eta balioen bestelako historia laburra** idazlaneko lehen zatian. Horren aspaldikoa den garai hartaz ezer gutxi badakigu ere eta aldez aurretik zeharo harrigarri iritzi badakioke ere, zalantza handirik gabe esan daitekeen zerbait da.

Ondoren helduko den garaia, Neolitiko Atlantikoa, berdin atxikiko zaio zintzotasunari, eta bere ideologiaren euskarri nagusietakotzat gordeko du. Gizarte-bizitzarako eredu mitologiko nagusi diren jentilak zintzo baino zintzoago ikusiko ditugu hitza betez eta auzo-bizitzako harremanetan beti zuzen jokatuz. Kultura horren hedadura osoan aurkituko ditugu horren adibideak, "kristauak baino kristau hobeak" diren euskal jentilengan nahiz Norvegia edo Danimarkako Faroe uharteetako "jentila bezain zintzoa!" bezalako ohiko esaldietan.

Kristautasunaren eraginez sarritan zintzotasuna beste munduan sarituko den zerbait balitz bezala azaldu ohi bada ere, gutxitan nabarmentzen da zintzotasunaren kultura zabalduen duten herriak direla denetan aberatsenak eta bizikalitate onena dutenak. Izan ere, norbanakoaren mailan maltzurkeriak abantailak izan baditzake ere, konfiantza eta lankidetza idorrarazten ditu, gizarte-mailan orokortuz gero; eta aberastasunaren galgarri bilakatzen da. Aldiz, zintzotasuna oztopo izan daiteke norbanakoaren mailan, une jakin batean; baina, gizarte-mailan zabalduz gero, eragin onuragarri ikusgarriak ekarri ohi ditu, aberastasun handiagoa tarteko, konfiantza eta lankidetza lorarazten dituenez. Gaur egungo hizketan ere, "Hitza zor" zintzotasunaren adierazpen labur eta zehatza dugu.

TALDE IZANA: gaurko munduan, norbanakoaren izana da nagusi; baina hori ez da beti horrela izan. Paleolito garaitik dakigun apurrari begiratuz gero, batetik, labar-arteak iradokitzen digu gizakiak ez ziola bere buruari garrantzia handiegirik ematen, oso gutxitan ageri baita haren irudia eta, ageri denean ere, era trakets samarrean ageri baita. Bestetik, gizarte primitiboetan aurkitu ahal izan diren ezkontza-arauek erakusten digute, ezkongaiak baino areago, taldeak direla aldiro ezkontzen direnak. Susmo-izaerako uste horien sendogarri izango da geroxeago Neolitikoan topatuko dugun ontologia. Izan ere, nekazaritzaren iraultzak gizakiaren handitasunaren eta harrotasunaren ideiak lehen

aldiz plazaratu bazituen ere, Europako isurialde atlantikoan sortutako kultura neolitiko bereziak, dolmenismoak, alegia, ez zuen aintzat hartzen norbanakoa, eta eremu bati loturiko taldea da izanaren jabe. **Ontologia Euskal Mitologian** artikuluan aurki daiteke horren azalpen luzeago eta osoagoa.

Talde-izate horren itzala luzea da gurean. Mitologian ageri da nabarmen, euskal deitura gehienetan, eta eguneroko bizitzako hainbat eta hainbat ezaugarritan ere argi ikusten da. Esate baterako, hizkeran, euskaraz oraindik ***"gure ama"*** eta ***"gure etxea"*** esaten dugu gaur egun, inguruko erdaratan ***"nire ama"*** eta ***"nire etxea"*** adierazten duten esamoldeak erabiltzen diren bitartean. Bizitzaren ardatzean norbanakoa ala taldea jartzen den adierazten du horrek. Gero ikusiko ditugu xehetasun handiagoz taldeizate horri loturiko onurak eta ajeak, egokitasun eta desegokitasunak, egungo bizimoduaren ikuspuntutik begiratuta. Herri-nortasunaren inauste-lanetan, adar garrantzitsua eta eite-emate zailekoa dugu, zalantzarik gabe.

Eitea ematen aurrera

Gure sagarrondoaren hiru adar nagusiok, berriz, hiruna abarren sorburu dira, eta bederatziok osatzen dute gure nortasunaren hezurdura. Ekimenaren esparru ideologikoan sortzen dira zorroztasuna, askatasuna eta duintasuna. Zintzotasunaren adarretik, onberatasuna, zinezkotasuna eta eskuzabaltasuna. Eta talde izanari dagozkio elkartasuna, berdintasuna eta apaltasuna. Ezaugarri horien guztien adibideak aurki ditzakegu mitologian eta izate tradizionalari dagozkion hainbat eta hainbat ezaugarritan.

ZORROZTASUNA. Ekimenaren antzera, Jainko ahalguztidunik gabeko testuinguru batek sorrarazten du. Goitik edo kanpotik inork ez baditu gure arazoak konponduko, gerok konpondu beharko ditugu. Eta, hein berean, gauzak ondo egiten ez baditugu, gerok izan behar dugu geure buruaren epaile eta zuzentzaile, goiko edo kanpoko inor etorriko ez denez zuzentzera. Egoera horrek zorrotz izatera behartzen gaitu. Auzoa joan ohi zaio apaizari, konjurua egin dezan eskatzera, eta ez du etsiko, harik eta egiten duen arte, haserretu ere haserretuz horretaraino iritsi behar bada. Etxekoandreak sukaldean kandelak pizten ez baditu, ilunpean geratuko dira haren gurasoak eta etxeko gainerako hildakoak, lurpeko eremuetan; zorrotz bete behar du bere egitekoa egunero. Ekimenari eutsi eta azkeneraino eraman beharrak sortzen du zorroztasuna. Adiera horretan, sinonimotzat har genezake "erantzukizuna" ere.

ASKATASUNA. Jainko ahalguztidunik gabeko munduan, gizakiak askatasunean bizi dira. Inork ez du haientzako helbururik, helmugarik edo aurrez seinalatutako biderik. Askatasun hori aurrez aipaturiko zorroztasunaren eskutik doa (erantzukizuna esan lekioke, halaber), beraz, sorburu berekoak direlako. Gizakia aske da, eta bere bizimodua antola dezake (taldean); bere jomugak erabaki ditzake. Gizakia ez da aske taldearekiko, baina, talde moduan, aske bizi da munduan, Jainko ahalguztidunik eta indarkeriarik gabeko mundu horretan. Izan ere, horrelakoa da euskal mitologiak irudikatzen duen mundua, Jainko ahalguztidunik gabea eta indarkeria-eredurik gabea.

DUINTASUNA. Askatasunean zorrotz ekinez, zintzo eta gizalegez bizi den gizakia gizaki duina da, Jainko ahalguztidunaren morroi bizi dena ez bezala, indarkeriaren menpean hezurrak edo gogoa jipoituta bizi dena ez bezala, bai morrontza eta bai indarkeria duintasunaren hiltzaile direlako. Jentil indartsuen artean, ez dago oldarraldi-eredurik; Marik ez du inor txi-

mistaz jotzen. Duintasunaren galgarria, halere, ez dator soilik goitik edo kanpotik. Norberak ekimenean, zorroztasunean, zintzotasunean edo taldekidetzan egindako hutsek ere duintasuna galtzera eraman gaitzakete: alferkeriak, zabarkeriak, laguntza ukatzeak, gezurra esateak, zikoizkeriak…

ONBERATASUNA. Zintzoa eta onbera ez dira gauza bera. Zintzoa izan daiteke, onbera izan gabe. Horretarako, aski da hitza zorrotz betetzea. Halere, euskal mundu sinboliko zaharrean, zintzotasunaren adar nagusiari onberatasunaren abarra jaiotzen zaio, halaber. Jentilen inguruko sinesteen multzoan ageri da batik bat. "Kristauak baino kristau hobeak" zirela esaten da, ezin modu heretikoagoan, eta, kristautasunak onberatasuna aldarrikatzen duenez, zilegi zaigu uste izatea jentilak zintzoak ez ezik onberak ere balira bezala irudikatu ohi zirela. Uste horren sendogarria da hainbat indoeuropar kulturak geroztik egin duten jentilen argazkia; zeharo inozoak balira bezala erakutsi izan ditu horiek, gaiztoak inozo esan ohi baitio onberari betidanik.

ZINEZKOTASUNA. Zintzotasun giroan, zinezkotasuna maite ohi da, hots, zinezkoa dena, benetakoa dena. Barrena, kanpoa baino. Mamia, azala baino. Bihotza, janzkera

baino. Egia, itxura baino. Egina, esana baino. Jentilek ez dituzte diskurtsoak egiten: elizak eraikitzen dituzte; auzolanera biltzen dira, edota mesedeak egiten dizkiete auzokoei. Marik gezurtia zigortzen du. Hizkuntza bera ere zinezkotasunaren gorazarrez eta itxurakerien gaitzespenez beterik dugu: zer ikusi, hura ikasi; gezurrak hanka motz; pasta ederragatik, asto duk astoa; azpi zikin, gain garbi; bost xentimoko pupua eta pezetako trapua; etxean otoitzik ez, eta auzoan meza ematen; kanpoan uso eta etxean otso; gizona lepotik gora neurtzen da; usteak erdia ustel. Zinezkoa, benetakoa, gorespenez aipatu ohi da, eta, funtsik gabeko itxura, berriz, gaitzetsi.

ESKUZABALTASUNA. Ohikoak dira mitologian eskuzabaltasunaren gorazarrea eta bere aurkakoa den zikoizkeriaren gaitzespena. Eredu-emaile nagusiak diren jentilek hartzen dutena baino gehiago eman ohi dute. Izaki mitologiko horien gauzak urre gorrizkoak dira sarritan, eta, beraz, auzoekin trukeren bat egiten dutenean, azken horiek atera ohi dira irabazle. Auzoengandik mesederen bat jasotzen dutenean ere, urrezko opariren batez eskertu ohi dute lana. Berdin egiten du Marik berak ere, hainbat kondairatan. Eta etxeko hildakoek aurrea hartu ohi dute, gero ordaina ekarriko duen lehen urratsa erakutsiz, soroetan gauez lan eginez, etxean bakarrik geratutako haurra zainduz, etab. Izaki gorenek, izaki eredugarriek, eskuzabal jokatzen dute beti, horiekin harremanetan diren kristauek ez bezala sarritan. Eta kristau zikoitzontzako ez da zigorrik falta, **Ahurhutxeko** pasadizo ezagunean ageri bezala. Azkenik, hizkuntzan ere aurki daiteke herri-tradizioak arlo horretan izan ohi duen iritziaren adierazpidea, noski atsotitzetan, baina baita santa-eskeetako kopletan ere, esate baterako.

ELKARTASUNA. Talde izanaren lehen ondorioetako bat da. Elkarrekin bizitzetik nor bere etxean bizitzera igarotzen denean ere, jendea elkarri begira bizi ohi da euskal gizarte tradizionalean. Auzolanerako elkartzen da, neguko festa-eskeak egiteko elkartzen da, inori laguntza eman behar zaionean elkartzen da. Mitologiari dagokionez, jentilak ikusten ditugu berriro elkartasun-eredu, auzolanean parte hartuz, gaixo dagoen auzokoari bisita eginez edo auzokideekin tresnak trukatuz. Gainera, elkartasuna sakratua da, eta adur magikoa dariola uste da. Herri-gogo zaharrean, esate baterako, askoren artean bildutako diruarekin emandako mezak gaixoa sendatzeko indar handiagoa du, bakar batek ordaindutakoak baino. Jentilen kultura indarrean egon da Herbehereetan ere, eta, herrialde horretako albiste zahar batzuetan, elkartasunaren sakratutasuna aipatzen da esplizituki.

BERDINTASUNA. Asko eta berdinak. Honelakoak dira jentilak. Honelakoak dira Mariren tokian tokiko irudikapen askotarikoak, Marik berez bakarra behar lukeen arren. Eta laminak. Mitologiaren ereduetan, izaki berdinez osatutako taldeak ikusten ditugu. Horren berdinak dira, non nork bere izen berezia ere ez baitu gehienetan. Eta, esparru batean berdinak ez direnak elkarren ondoan bizi direnean ere –jentilak eta kristauak, esate baterako–, berdin biziz irudikatzen zaizkigu, haiek hauek baino aberatsago diren arren. Hizkuntzaren baitan ere, maizago aurkituko ditugu berdintasuna apurtu nahi dutenentzako gaitzespen adierazpenak, gorespenezkoak baino: ***gorago eta ipurdia ageriago; handinahi, handiuste, jauntxo, jaunxkila, harroputz...*** Hiztegi nabar eta aberatsagoa du euskarak horrelakoetan, inoren loria goraipatzeko garaian baino. Berdintasun horretatik kanpo geratzen direnak, nabarmenak direnak, ez dira ia inoiz ageri, eta, ageri direnean, ez dute patu onik. Jentilen akabera igartzen duen jentil itsua ez da besteak bezalakoa. Etorkizuna igar dezake. Horregatik, ez bide da besteekin batera bizi, eta horregatik amilarazten dute besteek, igarpena entzun orduko, kondairak horrela jokatzeko aitzakia sinesgaitz bat ematen badigu ere; izan ere, hark eskatuta egiten dutela kontatzen digu. Ezin da ukatu euskal gogo tradizionalean badela berdintasunaren aldeko jarrera.

APALTASUNA. Talde izanak eta berdintasunak ez dakar apaltasuna ezinbestean. Horretaz ohartzeko,

aski da armadako soldaduak gogoan hartzea. Halere, euskal nortasunari dagokionez, apaltasuna talde izanari eta berdintasunari lotzen zaie. Gure mitologian aurki daitezkeen izaki gorenak eta eredugarrienak ere inoiz ez ditugu harrokeriaz jarduten ikusiko. Handikeriarik gabeko bizimodua daramate, eta apaltasunez mintzatzen dira, baita haiek baino gutxiago garen gizakioi zuzentzen zaizkigunean ere. Marik bere ogia egosten du, eta bere artilea eta lihoa harilkatzen ditu. Jentilek, oso aberatsak izan arren, lanean dihardute. Batzuek eta besteek inoiz gizakiekin topo eginez gero, apal eta adeitsu mintzatuko zaizkie. Hizkuntzan, halaber, ugari dira apaltasuna goresteko eta harrokeria gaitzesteko hitz eta esamoldeak. ***"Aho bat eta bi belarri"***, dio horietako batek, zer esaten dugun halako bi entzun beharko genukeela adierazi nahian.

Enbor batez, hiru adar nagusiz eta hiruna abarrez osatutako sagarrondoa bere horretan inausita utziko dugu, euskal nortasun teorikoa definitzeko garaian. Noski, izango da ongi osatuta ez dagoela irizten dionik ere: non daude langiletasuna, sustraizaletasuna, gizalegea, errespetua eta horrelako balioak? Ez al dira horiek ere euskaldun finaren betidaniko ezaugarriak? Salatu aurrez zurituz, honatx hainbat argibide.

Langiletasunari dagokionez, lehen ere esan dut ekimenaren baitan bildurik irudikatzen dudala lanaren kontzeptua. Bestalde, ***lana*** kontzeptu bezala, bizitzarako ardatz nagusi bezala, Neolitoan asmaturiko berrikuntza ideologikoa da, eta, beraz, euskaldunen artean aspaldian zabaldurik dagoen arren, ez da nolabait "betidanikoa". Hein horretan, jatorragoa da ekimena. Eta ez hori bakarrik: gaurko egoera aztertzeko ere, askoz argigarriagoa izan daiteke, tresna kontzeptual gisa.

Sustraizaletasunaz ere, antzeko zerbait esan daiteke. Nork ukatuko du euskalduna sustraizalea denik? Gaur egun euskaldun garenok Bizkaiko golkoaren ondoan bizi gara, eta badirudi hortxe bizi zirela gure gaur egungo hizkuntzaren arbaso zen hizkuntzan zihardutenehiztari-biltzaileak ere, duela auskalo zenbat milaka urte, hamabost, hogei, berrogei…? Ezin aspaldikoagoko maizterrak gara, munduko txoko honetan. Halere, sustraizaletasuna, gaur ulertzen dugun moduan, Neolito garaiko nekazaritza-iraultzaren ondorio zuzena da. Orduan sortu zen nor bere sailari, nor bere bailarari, nor bere txokoari horren estuki lotu beharra. Beraz, hori ere aspaldi errotuta dugun arren, ez da betidanikoa. Paleolitoko ehiztaria ez zaio lurrari lotzen, ehizari baizik. Ehiza non, han du bere lurraldea. Eta, izotz-aro amaieran Bizkaiko golkoaren ondoan bizi zirenak euskaldunak baziren, pentsa dezagun haietako bakar batzuk baino ez zirela txoko horretan geratu eta gehienak Europan zehar hedatu zirela, haien aberria zen ehizari jarraiki. Beraz, izan, izan dira lurrari lotu ez zaizkion euskaldunak iraganaldian. Ekimenik gabeko, zintzotasunik gabeko edo talde izanik gabeko eredu euskaldunik izan ez bada ere, sustraizaletasunik gabekoa izan da, ordea, noizbait, aspaldi izan bada ere.

Gizalegea, errespetua eta horrelako balioak, berriz, gure nortasunaren betidaniko balioak izan arren, ez dira gure sagarrondoan islatzen, nolabait ere sagarrondo horretako beste abar batzuen ondorio zuzenak direlako. Zaila da kontzeptuen mailan zein den oinarrizkoa eta zein den eratorria erabakitzea. Zaila baino, ezinezkoa, seguru asko. Beraz, nork bere aukera egin behar du, ez dago beste biderik. Hemen azaldu dudan inausketaren arabera, ***errespetua*** askatasunaren, duintasunaren, zintzotasunaren, berdintasunaren eta apaltasunaren nahasketa balitz bezala uler daiteke. Eta ***gizalegeaz*** ere beste hainbeste esan dezakegu; hots, gure zuhaitzaren hainbat abarren batura eginez gero, deskribaturik geratzen da, eta ez da beharrezkoa, beraz, abar berri baten moduan irudikatzea.

EUSKAL NORTASUN TEORIKOA GAUR

Hasierako oharrean aurreratu dugunez, herri-nortasunaz taxuz jarduteko, galdetegi txukun bat eta ongi hautatutako erakusgarriei buruzko estatistika fidagarriak behar ditugu. Horiek izan ezean, ezin dugu maila teorikoan geratu baino. Beraz, gaurko euskal nortasun teorikoaz dihardugunean, balio eta ereduen baitan jarraituko dugu, orain arte deskribatu dugun nortasun teorikoak zer-nolako bilakaera izan duen aztertu nahian.

Orain arte azaldu dugun nortasun teorikoa Paleolitoan hasi eta Neolitoan barrena izandakoa da. Gerora, ordea, indoeuropar kultura nagusitu zen gure inguruan, eta, apurka-apurka, hark sustatutako ideiak eta balioak gero eta indartsuago txertatu dira gure artean. Duela bi mila urte gure sagarrondoak zuen eitea ez da gaur egun erakusten duena. Inausteko era aldatu ahala, eite hori aldatuz joan da, eta aldatzen jarraitzen du, gero eta nabarmenkiago, gainera. Cerquand-ek eta Barandiaranek duela 100-150 urte bildutako mitologian bertan, ez dira falta horren seinaleak, nahiz eta oraindik, apur bat besterik trakestu ez zen sagarrondoaren eitean, posible zen eite zaharraren nondik norakoak antzematea. Izan ere, jentil zintzo eta eredugarrien ondoan, hortxe dira jentil ergelak ere, kristauen maltzurkeriaz garaituak, gainerako indoeuropar kulturetan bezala. Mari bera ere, Naturaren indar soila baino gehiago bilakaturik, hau edo bestea zigortzen hasiko da han-hemenka, indoeuropar edo kristau jainkoen antzera. Euskaldunak kristau bilakatu dira, eta oharkabean baino ez dituzte gorde berezko ezaugarri bereizgarrienak.

Handik ehun urtera, gaurko egunera iritsita, indoeuropar kulturaren erasoak jo eta birrinduta dauzka euskara eta euskal nortasuna, itzulbiderik gabeko mugaraino. Nork daki mugaz bestaldera igaro-ta ez ote gauden.

Gure sagarrondoak gaur egun duen eitea deskribatzeari ekingo diogu orain. Esan bezala, balio eta ereduen planoan geratuz eta ***euskalberagoa*** hartuz aztergai. Esan beharrik ez dago, ***euskalberagoa*** multzo zabal eta nabarra dela, gauza batzuetan nolabaiteko homogeneotasuna duena, eta heterogeneo samar ageri dena, berriz, besteetan.



EUSKARA. Hizkuntza izan ohi da herriaren lika. Hizkuntzaren iraupena da nortasunaren iraupenaren bermerik sendoena, bakarra ez bada ere. Baina hizkuntza, nortasuna bezala, sagarrondo baten pareko irudika dezakegu. Sagarrondoak iraun dezake bizirik luzaroan, inork zaindu gabe, eitea arrunt itsustuta, gaitz guztiek jota, lau ale alu emanez, mihuraren bazka. Bizirik bai, baina pena-emangarri. Ez dut irudi hoberik aurkitzen, euskararen gaurko egoera deskribatzeko. Nortasunaren enborra gaitzak jota dago, baina batzuek, agintean daudenek tarteko, oraindik adar berriak hazten dituela-eta, pozik egon behar dugula dioskute. Gai honekin hemen gehiegi ez luzatzeko, honatx hainbat esteka, gehiago sakondu nahi duenarentzat. **Euskararen egoerari irizten, Euskal Telebista euskararen minbizia, Euskaldunak euskaraz ETBn.**

EKIMENA. Indoeuropar ideologia zabaltzen hasi zenetik, ekimena gainbehera doa, inguru osoa aurkako noranzkoan doalako. Jainkorik gabeko naturaren ordez, Jainko ahalguztidunak heldu ziren, eta, horiekin batera, Jainkoon nahia ulertu eta adierazten duten espezialistak. Herriak antolaturiko errituen ordez, apaizak baino egin ezin

dituenak. Guztiek ezagutzen duten ohituraren ordez, bakar batzuek egiten dituzten legeak. Agintea eta erlijioa goitik edo kanpotik datorkion gizartea herri izatetik populu izatera lerratzen da, apurka-apurka. Guztiaren ardura izatetik, arduragabekeriara. Ekimenaren jabe izatetik, bere esku ezer ez izatera, egonkeriara. Indoeuropar ideologiak gero eta esparru politiko handiagoak antolatzera darama gainera, eta, esparruok zenbat eta handiagoak izan, orduan eta zailago bihurtzen da giza taldeen ekimena.

Badira, bai, ekimena gainbehera joateko arrazoi objektiboak. Baina, arrazoi objektiboez gain, bada, halaber, arrazoi subjektiborik ere. Agintea goiko edo kanpoko batzuek dutela, ahal guztia goiko edo kanpoko batzuek dutela barneratzen denean, gizartea oharkabean lerratzen da goiko edo kanpoko horiek erreferentzia bakartzat hartzera eta berea duen ekimena ere haien esku uztera. Orduan, ekin beharrean, protesta egiten du. Auzia esku artean hartu eta handik edo hemendik ekin beharrean, zerbait egiteko antolatu beharrean, manifestazioak egiten ditu, goiko izaki goren bati haien atsekabearen berri hel dakion. Protesta baino egiten ez dakien gizartea ekimena galdutako populua da, indoeuropar ideologiak nahi duen modukoa.

Esate baterako, patetikoa da ikustea azken honetan jota gauzkan krisialdiaren inguruan zenbait sindikatuk egiten dituzten "ekintzak": tartean behin herriko plazan bildu, lanpostu gehiago eskatzen dituen pankarta baten atzean jarri komunikabideek argazkia egin diezaieten, pankarta bildu, eta tabernara, zerbait hartzera, etxera bazkaltzera joan aurretik. Ez dut zalantzarik haien asmo zintzoaz, ez dut zalantzarik lanpostu gehiago izateko haien esku zerbait balego laster egingo zutela. Ez dut zalantzarik, ekonomia gaur egun nazioartean horren esparru zabalean antolaturik dagoen moduan, ezinezkoa iruditzen zaigula edozer egitea, eta zaila dela asmatzea nola sortu lanpostu gehiago. Baina horrek ez dio irudiari patetismo apurrik kentzen. Arrazoi objektibo guztien gainetik, bere ekimena opari gisa eman duen gizartearen erritu berria ikusten dut hor. Eta ezin dut ez ikusi.

Indoeuropar gizarteak sailak eta mailak ezartzen ditu, arlo guztietan. Denek denetan parte hartzen duten gizarte neolitikoan ez bezala, indoeuropar gizarteak etengabeko sailkapenak egiteari ekiten dio: batzuk, aginte politikorako; beste batzuk, aginte erlijioso-ideologikorako; batzuk, indarkeriaren profesionalak; umeak alde batetik, gazteak bestetik; berdin gizonezkoak, emakumezkoak… Hein horretan ere, ekintzaileek klase bat osatzen dute. Ekimena taldearen bertute bat izatetik gizabanako batzuen ezaugarri izatera igarotzen da, eta ekimen horren helburu nagusia norberarentzat abantailaren bat eskuratzea da, aberastasuna normalean: enpresaburu esaten diogu gaur egun.

Eskema ideologikoak kaiolak dira gogoarentzat. Batek harrapatu zaituenean, ez da erraza hortik irtetea, eta, gehienetan, gainera, ez gara ohartu ere egiten kaiola batean bizi garenik. Hein horretan, gure artean nagusi diren eskuin eta ezkerreko ideologia "kontrajarriak" bat datoz, herriaren ekimena ahultzen duten hainbat ezaugarritan. Biek dute indoeuropar jatorri bera, eta, beraz, biek dituzte jatorri horretatik datozen ajeak. Batetik, etengabeko zatikatzea eragiten dute gizartearen baitan, horren indarra eta ekimena ahul daitezen lortuz (propio ala nahi gabe); eta bestetik, biek ala biek populua dute oinarri, ez herria. Ekimenik eta jakituriarik gabeko populua, erreferenteak goi edo kanpo aldean, nonbait, aurkitu behar dituena, dela erregetzan, dela erlijioan, dela politburoan, dela abangoardian.

Ezkerraren mintzabide klasikoan, lapurrak dira enpresaburu guztiak, langileei gainbalioa osten dietelako. Oinarri horren gainean, enpresaburuaren gaitzespena zabalduko da gizartean, eta, neurri batean, gizartearen erdeinua enpresaburuarengan. Enpresaburuak bere dohainak bere probetxu hutsean erabiltzeko gero eta joera nabarmenagoa garatuko du, eta gizartea gero eta ekimen gutxiagorekin, hustuago, geratuko da. Gizarterik gabeko enpresaburua diruari begira jarriko da, besterik gabe, eta ekimenik gabeko gizartea, estatuari begira, berak bakarrik konpontzen ez dakizkien arazoak hark konpon diezazkion. Eztabaidaezina iruditzen zait: hobe geundeke enpresa-

buruek gizartearentzat lan gehiago egingo balute, eta gutxiago beren buruarentzat, eta gizarteak estimu handiagoan izango balitu haiek. Izan ere, gizarte batek ekimena galtzen badu, bereak egin du. Indoeuropar kaiolatik ateratzen laguntzen ez digun ezkerrak, berriz, beste modu batean ikusten ditu gauzak. Hein horretan, argigarria da ikustea zeinen gutxi saiatu ohi diren sindikatuak (inoiz batere saiatu badira) euren afiliatuak langile zebiltzan enpresak kooperatiba bihur zitezen.

Euskal gizartearen ekimena osasuntsu samar ikusi ahal izan dugu duela gutxi arte, bere oinordekotza neolitikoari esker. Ikastolen sorrera, esate baterako, tamaina itzeleko lorpena da, herriaren ekimenari zor zaiona, bestelako erakunderik ez zegoen garaian. Euskalgintzaren inguruko beste hainbat erakunde eta ekitaldi, hala nola AEK, Euskaldunon Egunkaria, Korrika edota Kilometroak, herri ekimenaren adierazle dira, halaber. Eta, noski, gure ekonomian eta enpleguan horren garrantzitsuak diren kooperatibak ere bai. Ekimenez aberats izan ohi gara Euskal Herrian. Hemen uholdeak direnean, jendea agudo bildu ohi da bazterrak garbitzeko, kanpoko laguntza noiz etorriko den zain geratu gabe. Festak direnean, elkarteek antolatu ohi dituzte, udaleko teknikariak egitaraua egitera etorri gabe. Festak, kultura, kirola… herri ekimenez antolaturiko hainbat eta hainbat ekintza izan ohi dira. Ez da falta, azken honetan, gainbehera ote datorren esaten duenik. Belaunaldi berriak ez omen dira aurrekoak bezalakoak. Ohiko bihurtzen ari omen da ordenagailuaren aurrean eseri eta foroetan hau eta bestea kritikatzea, norberak ekin eta zerbait egiteaz ahaztuta.

Badira gizarte baten ekimena neurtzeko erakusgarri egokiak: elkarte-kopurua, edo borondatezko lanean dihardutenen kopurua, esate baterako. Hurrengo atalean esango dugu zerbait horiez, baina, oraingo honetan, oraindik ereduen mailan gaudenez, ez nuke esango ekimenaren inguruan adostasunik dagoenik gure gizartearen zati nagusia den ***euskalberago*** horretan. Euskaltasunaren ezaugarriak aipatzerakoan, ez dut uste gazte euskaldun askok lehenetarikoa jarriko luketenik hori. "Enpresaburu baino funtzionario nahiago" dioen gizarte batean bizi gara, ekitera baino protesta egitera ohitzen ari den gizarte batean, nagusitzeaz ahaztuta etsipenean eroso egoten ikasi duen gizarte batean. Ekimena inoiz baino beharrezkoagoa dugu. Irauliko ahal dugu joera garaiz!

ZORROZTASUNA. Zorroztasunak, ekimenaren adar osoak bezala, Jainkorik gabeko testuinguru batean du sorrera. Gizakiaren gainetik Jainkoa denean, Jainkoari dagokio ekimena, Jainkoari dagokio gizakiari zer egin behar duen esatea, Jainkoari dagokio gizakiaren okerrak zuzentzea. Jainkoari eta Jainkoaren ordezkariei, noski. Jainkorik ezean, gizakiaren gainean geratzen dira ardura horiek guztiak: gizakiari ez dio inork esaten zer egin behar duen, berea du ekimena, eta gizakiari ez dio inork esaten zer oker egin duen eta zuzendu behar duen, bera da bere buruaren epaile, berak arduratu behar du bere ekin guztien egokitasunaz. Hori da zorroztasunaren oinarri ideologikoa.

Oinarri horren arabera, zorroztasuna modako baliindioa litzateke gaur egungo testuinguru agnostikoan, baina bistan da gauzak ez direla horrela. Zakur batek kalean kaka egin eta jabeak ez duenean hura jasotzen, gutxi dira horri kargu hartuko diotenak. Berdin gertatzen da jende artean gehiegizko abailaz dabiltzan txirrindulariekin edo gizalegezko ez den beste hainbat eta hainbat jokabiderekin. Zorrotz jardutea ez da ohikoa, agintekeriari lotuta balego bezala ikusten da, "fatxa" da. Hobe ez ikusiarena egin, eta esan diezaiotela esan beharrekoa udaltzainek, horretarako daude eta. Lanak erdipurdi egin, gizalegeaz ahaztuta ingurukoak molestatu, hitzorduetara berandu iritsi; horrelakoak euskal jendearen artean garai batean baino ohikoagoak direla esango nuke, eta, batez ere, garai batean baino ulerberagoa dela euskal jendea horrelakoekin. Jainkorik ez dugu, baina Estatua dugu haren lekuan. Zerbait behar denero, beti bada nori dagokion hori egitea: irakasleak, udaltzainak, suhiltzaileak, epaileak… Hiritar soilari ez dagokio ezer egitea, ezertan laguntzea, ez dagokio ezer irakastea, gaitzestea edo zuzentzea. Eta hori horrela da, bai besteekiko, bai eta norberaren

buruarekiko jarreretan ere. Zorroztasunik gabeko gizakiak adin txikiko dirau beti, beti goiko edo kanpoko norbaiten zaintzapean. Herritik gutxiago eta populutik gehiago duen gizarte batek egiten du hori. Eta euskal gizarteak aspaldian nozitzen duen inguruko eraginak horretara bultzatzen du etengabe eta oharkabe. Zuhaitzaren eiterik ederrena lortzeko eztabaida polita dago arlo honetan, zorroztasuna/zabarkeria alde batetik, eta agintekeria/tolerantzia bestetik doiki eta zehatz-mehatz bereizten.

ASKATASUNA. Gizarte neolitikoa askatasunean bizi da, ez dagoelako Jainko ahalguztidunik, ez eta indarkeriarik ere. Bistan da geroztik ez dela gurean Jainko ahalguztidunik eta indarkeriarik faltatu. Gaurkoari begiratuz gero, gizartea agnostikoa da gehienbat, baina Jainkoen garaian bezala, goitik erabakita dago gizartea zein bideri lotu behar zaion, indarkeriaz erabakita ere. Baina hori inguruari dagokio, ez gizartearen muinari. Inguruaz bereiz, zenbateraino kutsatu du kanpoko eragin horrek euskal gizartea? Zenbat du oraindik balio dolmenikoetatik, eta zenbat indoeuropar ideologiatik?

Askatasuna indarrez ukatzea ohiko samar bihurtu da gure artean eta hemengoen eskutik. Badira, normala den bezala, datu kontrajarriak, joera kontrajarrien isla. ETAk ziharduen garaian ere, Espainiako fiskaltzaren datuen arabera, Euskal Herria zen denetan lurralderik seguru eta baketsuena. Gizartearen zati bat armazale bilakatu zen garaian ere, ez zen armadazale bihurtu halere, hots, parafernalia militarrek ez zuten ETA biziki kutsatu, ideologia militarra nagusitu zenean ere. IRAn ez bezala, uniformeak eta salbak ez ziren hemen inoiz sarritan ikusi. Badirudi dolmenismo zaharraren galga hor ibili dela lanean nolabait. Halere, banderen gehiegizko ugaltzea ekitaldi publikoetan edo indarkeriaren onarpen isil otzana bezalako erakusgarriak, indoeuropar balioen pixkanakako aurreratzearen adierazle dira. Gizartean askatasunak duen neurria testuinguru honetan, heroi zibilen kopuruak eman dezake.

DUINTASUNA. Aske eta buruaski, gainetik inor ez duela, bere lanari esker eta gizalegearen arabera bizi den gizakia da duintasunaren paradigma. Esklaboak ez bezala, torturatuak ez bezala, beldurrez bizi behar direnak ez bezala, alfer eta handiki-buztanak ez bezala, ipurtzuri eta pikaroak ez bezala. Ez da erraza gaurko egunean horrela definituriko duintasunari eustea. Gizartearen tamainak eta gizarteko elkarrekintzen kopuruak burujabetza eta buruaskitasuna nabarmen mugatzen dituztelako. Gaur ezin gara nekazari neolitikoa bezain duin izan; ez gara hura bezain aske; ez gara hura bezain burujabe; ez dugu hark adina maiestate. Gaurko gizarte konplexuan behar dugun duintasuna gizalegean oinarritu behar dugu: gizarte baketsu, zintzo, zorrotz eta elkartasunezkoa eraikiz, gizarte horretan denok duin izateko baldintzak aurki ditzagun. Aspaldiko duintasunaren adierazle ezkor diren mendeetako haserrealdiak edota sanba dantzatzeko aldaka zurruntasuna bezalakoak bazter utziz, ez direlako gaurkorako egokiak.

ZINTZOTASUNA. Zintzotasuna ongizatearen oinarrietako bat izan arren, gero eta lausotuago dago gure artean ikusten ditugun ereduetan. Euskal Herrian, badira oraindik aitzinetik datozen adibide ikusgarriak. Frontoiko apustuak, esate baterako, munduan bakarrak dira, dirua aurrez eman gabe egiten direnak, galtzaileak gero ordainduko duelakoan. Elkarte gastronomikoen kasuan ere, bazkide bakoitzak nahi adina edari hartu ondoren, kontuak atera eta dagokiona ordaintzen du beste inork zaindu gabe. Tabernetan, ez da apuntatzen zenbat pintxo hartu dituen batek. Zalantzarik ez da zintzotasunaren txapeldunak izan garela noizbait eta harro egoteko moduko titulua dela hori.

Halere, ingurua maltzurkeriaren oharkabeko gorazarrez bete zaigu. Umeek eredugarri ikusten dituzten euskal futbolariak ez dira espainolak baino gutxiago lurrera botatzen arbitroa engainatu nahian. Ingelesek bai planta gutxiago egiten dituztela nabarmen. Kosta ahala kosta irabazi beharraren eredua gailen da, eta zintzotasunari nagusitu zaio han eta hemen. Plantak, dopina… frontoietan ere nekez ikusiko duzu gaur egun jokalari bat epailea

zuzentzen bere buruaren aurka eginez egiaren faboretan. Eta ***euskalbera*** gehienak ez dira horiekin haserretzen. Isil samarrean onartzen dute maltzurkeriaren eta garaipenaren sitsak gure zintzotasunaren kultura apurka jatea. Ederra litzateke euskal federazioak zintzotasunaren aitzindari ikustea, eta euskal kirolariak zintzotasunaren eredu, eta euskal ikusle eta zaleak zintzotasunaren goresle. Entzungo al dugu noizbait San Mamesen edo Anoetan, Ipuruan, Mendizorrotzan edo Sadarren ikusleak jokalariari ere txistu edo marmar egitea arbitroa engainatzeko plantak egiten dituenean? Honetan ere, ekonomian bezala, epe luzean onerako litzateke, arbitroek zalantzarik gabe erabakiko zutelako jokalari zintzoak tartean dabiltzan jokaldietan. Sinesgarritasunak asko balio baitu.

Inguratzen gaituen mundu globalizatuak, hainbat jatorritako ideologia eta ereduak jartzen ditu erakusleihoan. Kosta ahala kostako garaipenaren indoeuropar eredua eta berehalako etekina duen maltzurkeriarena dira gehien ikusten ditugunak bazterretan. Gero eta gehiago entzuten dira gezurraren gorazarreak antropologo eta jakintsu ustekoen ezpainetan. Gezurra dela animaliengandik bereizten gaituena, gezurrari esker garatu zuela gizakiak burmuina, gezurra sozialki ezinbestekoa dela; hitz batez, gezurra dela adimenaren seinalerik gorena. Bankari handiren batzuk finantzaturiko ikerketak direlakoan nago, haien gogoen lasaigarri eta jokabideen zurigarri. Pedofiloek ere asko teorizatzen dute haiena normala dela adierazteko. Begiratu besterik ez dago gezurraren eta maltzurkeriaren gorazarrean aspaldian bizi diren kulturei, eta nola dauden ikusi.

Gaurko egunean, Euskal Herrian Espainian baino zerbait hobexeago gaude agian, zintzotasuna neurtzeko erakusgarrietan: letra gutxiago itzultzen dira, zorrak arinago ordaintzen dira, ustelkeria zerbait gutxiago dago hemengo politikan, baina kontsolamendu merkea da hori zintzotasunaren kultura honetan kide ditugun beste herrialde batzuekin erkatuz gero. Azterketetan kopiatzeari edo *curriculum* batean gezurra esateari beste toki batzuetan ematen zaion garrantzi larriak erakusten digu non hasten garen herren egiten. Gaur, gure eskola-ume euskaldun jatorrenek ere lapurreta txikiak egiten dituzte supermerkatuetan edo ikasketa-bidaietan egoten diren lekuetan, munduko gauzarik normalena bailitzan. Zuzenduko al dira elkarteko bazkide egin aurretik.

ONBERATASUNA. Kristautasunak onberatasuna sustatu ohi duenez, gizartearen jainkogabetzeak onberatasunaren baztertzea ekarri du. Onberatasuna bizitzarako eredutzat proposaturik, nekez aurkituko dugu gure ingurunean. Prozesu hau ezaugarri gehiagorekin ere gertatzen ari da, eta nortasun-galera larria eragiten ari da. Kristau usaina duen oro baztertu egiten da, sakonago aztertu gabe kristautasunak ekarritakoa den ala, aurretik indarrean izaki, kristautasunak bereganatutakoa. Mitologiak garbi erakusten digu, kristautasunaren aurrekoak diren Ipar Europako sinkretismoetan eta egundaino iraun duten albisteetan, onberatasuna jentilen zibilizazioari dagokion hautu kulturala dela. Ez nuke esango gaur egun onberatasuna gaitzetsia dagoenik euskal jendearen artean, ez eta onbera ergeltzat hartzen denik beste lekuetan bezainbeste, baina ez dakit zenbat euskaldunek jarriko lukeen euskal nortasunaren ezaugarri nagusietakoen artean nabarmenduta. Indoeuropar eredu gerlari eta boterezalearen eraginez, ez dira gutxi izango euskal jendearen artean onberatasuna erdeinuz gutxietsi eta izate maltzur eta bortitzagoarekin bat egin nahiago dutenak. Nire uste apalean, etsaiak ez gaitu garaitzen zapaltzen gaituenean, hura bezala bihur gaitezen lortzen duenean baizik.

ZINEZKOTASUNA. Zeharo trakesturiko abarra dela esango nuke. Zerbait esan eta beste zerbait egitearena gure gizartean dagoeneko ia normaltasun osoz bizi dugun egoera dela esango nuke. Eredu hori onetsi edo, gutxienik, onartu egiten duen ideologia aspaldian hasi zen zabaltzen gure artean, eta azken honetan gero eta sustraituagoa dago. Duela bost mila urte inguruko indoeuropar mitologia zaharrenak badakartza eredu horren adibideak, erregetza eta zinaren inguruko hainbat mitotan ezinbesteko

jotzen duenean, tarteka, emandako hitza jatea edo zerbaiten itxura erakutsita aurkakoa egitea. Kristau-aldi luzean, euskaldunek ikusi zuten Elizak txirotasuna goretsi zuela, baina gero hamarrenak eskatu eta buldak saltzen zituela. Gaur, zinezkotasunaren aurkako erasoa hain da orokorra eta egunerokoa, hain dago sustraitua, harritzeko gaitasuna galtzeraino eraman gaituela. Politikatik hasi eta publizitateraino, inork ez du errealitatea erakusten. Dena da soineko eder eta itxura, bazter guztietan. Komunikabideek erakusten diguten gehiena ez da erreala. Elikagai iragarkiek telebistan erakusten digutenak ez du elikagai horien errealitatearekin zerikusirik gehienetan. Politikariek kontatzen digutena ez da benetan uste dutena, irudi aholkulariek esanarazten dietena baizik. Aldizkarietako irudietan, ordu eta erdiko makillajea egon ohi zen aurretik, eta, orain, ordubeteko ***photoshop***a atzetik ere. Benetan adierazkorrak diren hitzak baztertu egiten dira, eta, horien ordez, gozoago, baino aldi berean ulergaitzago diren beste batzuk hobesten dira, ekonomian esate baterako. Eta, tantaka-tantaka, oharkabean, gero eta barneratuago dugu itxurakeria horien onarpena. Gero eta gutxiago bizi gara mundu errealean, eta gero eta gehiago irudimenezko mundu horietan. Inguruan dugunari bizkarra ematen bizi gara gero eta gehiago. Euskararen erabilpena atzeraka zihoala, ezaguerak aurrera egin arren, duela hamabi urte hasi zen detektatzen. Hamabi urte igaro diren arren, ez Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikak ez eta ezker abertzale inguruko euskalgintzak ere, ez dituzte haien irudimenezko munduak eraitsi. Batzuentzat "errua" Espainiatik etorritako immigranteek dute azken finean, eta, besteentzat, etengabe nozitzen ditugun kanpoko erasoek. Itxurekin itsututa, errealitatea ikusteko eta deskribatzeko gaitasuna galtzea da gerta lekigukeen gauza larrienetakoa. Non zauden ez badakizu, nekez asmatuko baituzu nora jo, nondik eta nola.

ESKUZABALTASUNA. Eskuzabal izatea nahiko errotuta dagoela esango nuke. Eskuzabal izatea eredugarritzat jotzen da, oro har. "Beti laguntzeko prest" esaten da norbaiten gorazarrez; lore gutxi izango dira gure artean hori baino politagoak inori botatzeko. Taldean tabernara joan eta norberarena ordaintzea gaitzesgarri eta barregarritzat jo ohi da. "Katalanen modura" esaten zitzaion duela urte batzuk, agian gaur ere. Odol-emaile eta organo-emaile asko dago, herriekimenetan laguntzeko bildu ohi da nahikoa jende, mendian janik gabe gertatzen bazara ez da faltako bere hamaiketakotik puska bat eskainiko dizunik. Borondatezko musu-trukeko lana ohikoa da, eta zeharo onetsita dago gizartean, agian azken honetan zerbait behera egiten hasi ote den kexu batzuk zabaltzen ari diren arren. Gure sagarrondoak sano samar duen abarretarikoa dela esango nuke. Baina gauden erne.

TALDE IZANA. Talde izana nagusi denean, norbanakoak ez du askatasunik. Eredua bakarra da denentzat, eta ereduz kanpo dabilena taldetik kanpo geratzen da. Ez dago lekurik txima luzeentzako, maritxuentzako, tatuajeentzako, elizara ez doazenentzako edo, orokorrean, tokian tokiko eta garaian garaiko ereduaz kanpo geratzen direnentzako. Ardatza taldea denean, taldearenak dira egin beharreko lanak eta iritsi beharreko helburuak, eta ez dago norbanakoaren bestelako lan edo helburuak garatzeko aukerarik. Kideren batek egindako balentriak taldea famatzen du, eta batek egindako akatsak, berriz, taldea lokazten. Lazarraga idazlearen izena zeharo galdu zen euskaldunen artean, baina haren sorterriak gorde zuen haren sonaren oroigarria: ***"Larrea, Burgos baino hobea, Toledoren parea"***. Gainera, iraun egiten dute honelakoek betirako; onerako eta txarrerako. Larreak ez zuen, noski, beste idazlerik izango bostehun urteetan, baina hortxe dirau esanak. Txarrerako denean, etxe edo herriren batekoek gaiztakeriaren bat eginez gero, etxe edo herri horretako guztientzat, oraingo eta gerokoentzat, izango da zigorra, izana bakarra baita, lehen, orain eta gerokoa nahiz han diren guztiena. ***Agerre, Agerre den artean, ez da bertan eririk edo makirik faltako!*** dio, etxe horretako oraingo guztiak eta etorkizunean izango diren guztiak ere hartzen dituen madarikazioak. Hein

honetan, talde izanak norbanakoaren zorroztasun etikoa indartzen du, akatsak ez direlako norberaren arazo, talde osoaren betirako lokazgarri baino. Beraz, talde izana alde guztietatik da norbanakoaren askatasunaren eraile: norbanakoa eredu baten barnean sararazten du, ez dio uzten taldearenak ez diren bestelako helburuak lortzeko ahalegina egiten eta, gainera, zorroztasun etiko izugarrira behartzen du.

Dolmengileen talde izana ez bezalakoa da, indoeuropar ideologiaren eskutik datorren talde izana. Bien arteko aldeak nabarmenak dira: Tamainaz, batzuen ***etxea***, ***auzoa*** edo ***herria*** besteen ***aberria*** baino txikiagoak dira. Eta izatez, indoeuropar ***aberrian***, ekimena eta zorroztasun etikoa ez dagozkio herriari, estatuari baizik. Estatuari, alegia, erregeari, legeari, erlijio ofizialari. Norbanakoaren ekin beharra aienatu egiten da, norbanakoaren erantzukizuna eta zorroztasun etikoaren beharra diluitu egiten dira, eta, hein berean, haren askatasuna handitu egiten da, entrenamendu gogorrari gehiago lotu behar ez zaion kirolariaren kasuan bezala. Norbanakoaren askatasun berri hau "ezkerreko" ideologiak argi-itzalik gabe goraipatzen du sarritan, erreparatu gabe nondik datorren eta zer albo-ondorio dituen. Erregeri, legeari, erlijioari edo indarrean dagoen doktrinari men eginez gero, tabernan edo telebista aurrean eserita ezer egin gabe bizi zaitezke, zure alboko inori lagundu gabe, gezurti edo etxekalte. Inork ez dizu kargu hartuko. Ez duzu aparteko erantzukizunik, agintetik datorrenari men egin besterik ez. Izengabeko gizaki aske bat zara gizarte handian. Ez dago zalantzarik askatasun berri hau izugarri preziatua izan dela eta izaten jarraitzen duela, talde izan indartsu baten menpe bizi izan diren askorentzat.

Indoeuropar ideologiatik datorkigun askatasun berri horri laguntzaile berria azaldu zaio azken urte hauetan: aukeren eztanda. Izan ere, gaur egun, inoiz ez bezalako aukera kopurua dugu denok begien aurrean, asko eta asko edonoren esku. Gizarte dolmenikoan norbanako izaera bera ere ukaturik duen gizakiak ez bezala, gaur egungo euskal herritarrak aukera sorta mardula du bere bizia bizitzeko: bakarrik bizitzea aukera dezake, edo bikotearekin (sexu bereko nahiz bestekoarekin). Zientoka ogibideren artean hauta dezake berea. Noranahi joan daiteke bizitzera. Munduko edozein bazterretako lagunak izan ditzake, eta haiekin egunero berriketan jardun. Nahi adina informazio aurki dezake edozertaz. Nahi duen erlijio edo kode etikoaren arabera antola dezake bere bizitza. Gizabanakoaren askatasunaren gailurrean bizi gara.

Talde izana nagusi den testuinguruetako gizabanakoa ***lego*** deritzon jostailuaren osagarriak bezalakoa da: denak berdin samarrak dira, karratu edo errektangularrak, hutsunea dute azpian, eta konkortxoak gainean. Horietako sakelatxo bat hustuz gero ez dira urruti joango, denak elkarren ondoan geratuko dira. Bakarka hartzen badituzu, ez dira batere dotoreak, ez dute zentzu handirik, bere horretan. Baina elkarrekin uztartzeko balio dute, eta era sinplean eta neke handirik gabe osatzen dituzte era guztietako eraikinak.

Gure gaurko testuingurua bezalakoetan, ordea, gizakia puxtarriekin erka genezake. Biribil perfektu leunak, tamaina guztietakoak, zulo edo kozkorrik gabeak, horietako sakela hustuz gero, hagitz urrutiraino sakabanatuko dira, bilika, libre hara eta hona. Uztartzeko garaian, ordea, komeriak. Kanpoko sakela edo ontziren batek biltzen ez baditu, ezin dira elkarren ondoan egon, eta ez dute denen artean ezer eraikitzeko gaitasunik. Ederrak bakarka, baina ezgauza elkarrekin ezeri ekiteko.

Talde izana gainbehera doa aspaldian gure inguru osoan, eta gure baitan ere bai. Talde izanarekiko lehen haustura umeek ez dutela gurasoen erruengatik ordaindu behar onartzearekin heltzen da. Nork ukatuko du liberazio handia denik? Agerreko belaunaldi berriak, behinik behin, pozik omen daude aldaketarekin. Gure artean, baserritik kalerako bidearekin batera, eta, berrikiago, herri txiki eta ertainetik hiriburuetarako bidearekin batera, talde izana ahuldu eta banako izana indartu da azken mendean. Libreago bizi gara, izengabeago bizi gara, aukera gehiagoren artean bizi gara. Eta, era berean, elkarrekin uztartzeko gaitasuna galdu dugu, ekimena galdu dugu, gauzak egiteko indarra galdu dugu. Elkarte gastronomiko eta kulturalak krisian daude bazkidetza zaharberritu ezinik, ez da inor joaten herrietako futbol-taldeen partidak ikustera, gero eta zailagoa da herri-lasterketak antolatzea, zirkuituan zehar behar den laguntzaile-kopurua gero eta nekezago osatzen delako. Leitzako pilotari batek jarraitzaile saldo handiagoa eramaten du frontoira Iruñeko beste batek baino, Iruñeko biztanle-kopurua Leitzakoa halako hirurogeita zortzi izan arren. Gauza ederra da talde izanak ematen duen indarra.

Bistan da talde izanak badituela aurkia eta ifrentzua. Agian, talde izanari zor diogu neurri handi batean euskarak eta euskal kulturak egundaino iraun izana. Agian, talde izanari zor diogu, halaber, beti atzeratuta ibiltzea eta hitzordu historiko guztietara berandu iristea. Talde izanaren indarrari (eta gidaritza eskasari) zor bide zaio baita ere gure herriaren zatirik euskaldunenak azken bi mendeetan egin duen bidaia ikusgarria, kristau fundamentalisten eskuin muturretik, marxismoaren ezker muturreraino. Noraez eta noranahi, baina beti elkarrekin. Gure kasuan, gainera, gure kulturkide europarren kasuan ez bezala, baserritik kalerako bidea euskaratik erdarako bidea izan ohi da neurri handi edo txikiagoan, hots, kultura batetik oso bestelako besterako bidea. Eta horregatik, seguru asko, gehiago galdu da bidean. Ikusten duzunean Gipuzkoako arduradunak Holandako eredu asistentziala aztertzen ari direla eta eredu hori hirira eramandako auzolanaren eredua dela, ohartzen zara gauza horiez.

Ez dut uste inork ukatuko duenik ona litzatekeela talde izanaren hobari batzuk berreskuratzea, hain kuttun ditugun askatasun, eskubide eta burujabetza pertsonalak gehiegi ukitu gabe. Eztabaida badabil engoitik, gizartearen hainbat arlotan, baina gizarte osora zabaldu beharko litzatekeen gaia da. Filosofiko samar iritzi dakiokeen arren, izugarri garrantzitsua litzateke gai horren inguruan adostasun zabal bat eta estrategia bateratu bat iristea. Kasu honetan ere, ez dut uste eztabaidak izan behar duenik lehengoa ala gaurkoa. Uste dut etorkizunari egokitutako ibilbide eta oreka berriak saiatu behar ditugula. Aurreko jostailuen metaforari helduz, puztarriak eta legoaren piezak ezin dira ezkondu, puztarriak ezin dira behartu legoaren piezen eitea hartzeko, baina, zulatu, zula daitezke, gero ardatz batzuekin bata bestearekin uztartzeko. Eta forma berri harrigarriak lor daitezke gainera, lego zaharrarekin ezinezkoak liratekeenak.



Bakartzera eraman gaitzaketen baliabide elektronikoak urrutikoekiko taldeak osatzeko balia daitezke, esate baterako (nago euskara bere enegarren krisitik aterako

duena Internet izango dela, euskaltzale sakabanatuen gotorleku berria bilakatuz, izan ere, une honetan izaten hasi den bezala). Edo ingurukoekin elkartzeko gastronomiaz eta kirolaz haratagoko helburu berriekiko taldeak asmatzeko. Hezkuntza-sistema eta herritar kezkatuen esku geratzen da etorkizuna moldatzen hastea.

ELKARTASUNA. Elkartasuna talde izanaren ondorio da, eta, beraz, horren gorabeheren araberako. Talde izana ahultzearekin batera, elkartasuna ere ahuldu egiten da. Indarra galtzea baino, etenez betetzen da, hezurdura falta zaiolako. Gaurko euskaldunek onespenez ikusten dugu elkartasuna, eta, tarteka, erakustaldi bikainak ere badakigu egiten: ikastoletako eta euskararen inguruko jaiak, Euskaldunon Egunkaria edo Berria sortzeko diru-bilketak, edo, oraintxe bertan, Tolosaldeko ume bati San Filipo gaitz arraroaren tratamendu garestia ordaintzen laguntzeko egiten ari dena. Baina, esan bezala, talde izanak indar handiagoa duen lekuetan gertatzen da gehienbat, eta marko egonkor eta araupetu bat izan ezean (auzoko gizalegeak garai batean ezartzen zuena), ez du jarraitutasunik. Hein horretan, eztabaidarako gai egokia da kaletartze-prozesuan atzean utzitako elkartasun-ohiturak nola berreskuratu, nola hiritartu, eta, hein berean, nola sortu araubidezko hezurdura bat, elkartasuna etenik gabe egunerokotasunez gara dadin. Lehen aipaturiko Holandako zaharren zaintza-eredua esperimentu benetan interesgarria litzateke gure artera ekartzeko.

BERDINTASUNA. Talde izanari jaiotako abarra denez, bi hauetan da haren oinordeko: gainbehera doa gure artean, eta baditu, hark bezala, aurkia eta ifrentzua. Berdintasuna gainbehera doa gure artean, aspaldian gailen dagoen indoeuropar kultura, sailkatze eta mailakatzearen kultura delako. Halere, gure ingurua bezain indoeuropar ez garelako oraindik, euskaldunak berdinago gara gure artean gure ingurukoak haien artean baino. Berdinago eta berdinzaleago. Gehiegizko aberastasunaren erakuskeria edo besteen gainetik nola edo hala nabarmendu nahia, gaizki ikusiak daude, oro har, ***euskalberagoan***. Soldata sorta inon den estuenetakoa da gurean, eta jendeari "besteak bezalakoak" izatea gustatzen zaio oro har, "besteak ez bezalakoak" baino. Autoa erosterakoan, ardo mota edaterakoan, zer kirol egin hautatzerakoan eta antzeko erabakietan ageri da hori. Taldean egoterakoan eta hitz egiterakoan ere, inoiz idatzi ez den baina, oharkabean, jakitun garen kode baten arabera jardun ohi dugu, besteek baino gehiago hitz egin gabe, besteek agian ezagutzen ez dituzten gaiez jardutea saihestuz, eta topikoetara aise joz, ez nabarmentzearren. Esango nuke nabarmentzearen beldurrez garela hain grazia gutxiko. Gaur egun, modernitatearen eskutik hainbat ezberdintasun onartzea ohiko bilakatu bada ere, hala nola ateoa, ezkongabeko ama edo homosexuala izatea, berdinzaletasuna eta horrek eragindako jokabideak ez dut uste asko aldatu direnik gure artean.

Baina komeni al da aldatzea? Egokia al da gure izaera hori gaurko garairako? Nire ustez, berdin samarrak izatea ezinbestekoa da, arestian aipaturiko talde izanaren hobariak inoiz berreskuratu nahi baditugu. Berdin samarrak izanez gero, oso ezberdinak izanda baino errazago aurkituko dugu elkarrekin uztartzeko bidea. Halere, ez dugu ez ikusiarena egin behar berdinzaletasunaren bidetik etor daitezkeen arrisku eta alde gaitzesgarrien aurrean. Gogoeta librea garrantzitsua da, emankorra izan ohi da eta aurrerabidea ekarri ohi du, baina testuinguru berdinzale batean arazoak izan ditzake garatzeko. Gogoeta librerik gabe, beti berandu eta azkenak iristen jarraituko dugu hitzordu guztietara. Bikaintasuna ezinbestekoa da eta izango da etorkizunean ere, bizitzaren arlo guztietan: zientzian, industrian, edonolako jardun produktiboan, hezkuntzan… Azken hori ere, larri ibil daiteke behar bezala garatzeko, berdintasuna nagusi den testuinguru batean. Berrikuntza ezinbestekoa da eta izango da; baina nola integratu berritzailea, testuinguru berdinzaleak ito ez dezan? Arlo honetan ere badugu zer pentsatu eta zer eztabaidatu. Berdinen berdintasunetik ezberdinen berdintasunera egin behar dugu jauzi. Ateoak, ezkongabeko amak edo homosexualak

berdintasunean integratzera heldu diren bide beretik edo beste batetik, gogoeta librea, bikaintasuna, berrikuntza eta antzekoak integratuko dituen berdintasun berria sortzen hasi behar dugu.

APALTASUNA. Zer nola ikusten du gaur egungo ***euskalberagoak*** apaltasuna? Bi mailatan azter dezakegu: jarreretan eta helburuetan. Mutil kozkor nintzela, erakutsi zidaten ume batentzako zen gauzarik itsusiena lotsagabe izatea zela. Eta hemendik kanpo aterata beste ume eta gazte kozkorrik ezagutzeko aukera izan nuenean, lehen irudipena hartu nuen haiek gu baino lotsagabeago eta azal lodikoago zirela, nabarmen samar. Gaur egun esango nuke, norbait umila dela esaten denean, oraindik gorespenez esaten dela gure artean. Halere, ez dira gutxi jatortasunaren izenean euskal gazteria intsumiso eta erreboltariaren alde egiten dutenak, horrek harrokeria eta lotsagabekeria arrotzetatik zenbat duen gogoeta egin gabe. Azken finean, apaltasunari gertatzen zaio beste hainbat baliori gertatzen zaiona, hots, kristautasunak bere egin duenez luzaroan, kristautasunaren arbuioaren barnean geratu dela harrapatuta neurri batean, gure artean kristautasuna baino dezente lehenagokoa dela ohartu gabe.

Dena ez da ezkorra, hala ere. Bada nazioartetik datorkigun jarrera apalen aldeko joera bat, esate baterako enpresa-munduko lidergoaren inguruko teorizazio-lanetan. Agintari apalak eraginkorrago omen dira gero eta jantziago diren langileengan motibazioa, lankidetza eta elkarlanerako jarrerak sustatzeko. Helburuei dagokienez, berriz, apaltasuna larriago dabilela esango nuke indoeuropar balioek kutsaturiko gure mundu honetan. Eredu urrun eta handikiak gero eta ugariago dira gure artean. Eredu hurbilago eta apalagoak, urriago. Che Guevara eta Mark Zuckerberg oso eredu ezberdinak diren arren, biak dira eredu handiki eta urrunak. Gure apeta eta txirrintak, gure helburu eta jomugak gero eta urrunago daude, gero eta handikiagoak dira. Gero eta zailagoak. Gero eta helezinagoak. Munduak gonbita egiten digu besteen bizitza bizitzen saia gaitezen, geurea bizi ordez, gure gorabeheren berriak komunikabideetan guztien eskura jar ditzagun. Hurbiltasunaren eta apaltasunaren etengabeko gutxiespen subliminala jasoz bizi gara.

EUSKAL GIZARTEAREN NORTASUNA

Euskal gizartea, lehenago esan dugun bezala, Euskal Herrian bizi garen guztiok osatzen duguna da. Hemen dira euskaldunak eta erdaldunak, euskaltzaleak eta erdaltzaleak, arbasoak bertakoak eta kanpokoak dituztenak, beltzak eta zuriak, aberri baten edo bestearen zaleak.

Gizarte baten barnean herri-nortasun indartsu bat dagoenean, herri-nortasun horrek gizarte osoa kutsatzea lortu ohi du neurri handi batean. Adibidez, Alemaniako produktu industrialen sona eta haien kalitate ezin hobearen irudia ez da batere ahuldu azken urteetan, horiek ekoizten dituztenen artean milioika espainiar, turkiar eta hainbat jatorritako etorkin dauden arren. Guztiak kutsatu dira hangoen izaerarekin, guztiak egin dira hango bertuteen jabe, guztiak bihurtu dira alemaniar.

Euskal gizartea, ordea, urrun samar da antzeko zerbait erdiestetik. Lehenik eta behin, euskal "herri-nortasuna" definitzeke dugu, eta hori izan ezean ezinezko da aurrera egitea. Gure "herri-nortasuna"ri buruzko desadostasunak hain dira ugariak eta nabarmenak, izen hori merezi duen ezer ba ote dagoen zalantza egin daitekeela. Euskara den enbor beretik hasita, askorentzat posible da euskaldun jatorra izatea beti edo nagusiki erdaraz jardunez; beste batzuk, ordea, ez daude horretan. Zer esanik ez adarretan gora eginez hasten bagara. Hainbeste mende ideologia arrotzen menpean, hainbeste bidaia ideologion mutur batetik besteraino, non inoiz izan zen sen berezi baten aztarnak nekez antzeman daitezkeen gaur gure sagarrondo sasituan.

Aurrekoari erantsi beharko genioke gure herria bi estatu eta hiru eremu administratibotan zatiturik dagoela eta horrek "euskal gizartea"z hitz egitea are zailagoa bihurtzen duela. Angelura erretiratu den paristarra eta Tutera inguruko euskarafoboa nekez sartuko zaizkigu ezertan sail berean, baina, halere, "euskal gizarte" horretan ditugu, eman dugun definizioaren arabera. Lan eskerga lirudike horrelakoak nortasunkide bilakatzea, baina, ongi pentsatuta, ez du errazagoa ematen turkiarrak edo espainiarrak alemanekin ideia, balio eta jarreretan kidetzea, eta hori gertatu da engoitik eta ez behin edo bitan, hainbat milioi jenderekin baizik. Gakoa ereduaren erakargarritasuna da. Eta erakargarritasuna bi aldagaion araberakoa izan ohi da: bikaintasuna eta tokikoen atxikimendua.

Bikaintasunak denok erakartzen gaitu, denok nahi dugu bikain izan. Alemaniara iristen den etorkin turkiarrak oso ondo funtzionatzen duen gizarte bat topatzen badu, bertakotu egin nahi du, bat gehiago izan nahi du. Bikaintasun horren partaide izan nahi du berak ere. Eta bere pertzepzioan eragin handia izango du hangoen atxikimenduak hango ohitura, erakunde eta kulturarekiko.

Gureari begira jarrita, hemen ere bikaintasuna eta hemengoen atxikimendua behar ditugu, inoiz gure gizartekideak erakartzeko esperantzarik badugu. Gure artera datorren etorkinak edo gure alboan kultura erdaldun batean bizi denak herri-nortasun eredu eskasa aurkitzen badu, edota hemengook estimu txikian dugun eredu bat topatzen badu, ez du inolako erakargarritasunik sentituko, eta auzitan jarriko du aniztasun handiko gizarte batean zati batek bere "herri-nortasuna" besteei inposatu nahia. Hori da, nire uste apalean, une honetan gertatzen ari dena. Gure "herri-nortasuna" hain dago trakestua, gure sagarrondoa hain dago sasitua, erro bereko ez diren gure gizartekideek burla egiten digute. Gure hizkuntzari hain diote estimu eskasa euskaldun elebidun gehienek, ez dakitenek ez dute behar hainbat indarrik aurkitzen hura taxuz ikasteko, eta gero eta oldarkorrago ageri dira ikasi behar horrekin eta horri loturiko lege bidezko hobariekin.

Inausteko guraizeak astintzen hasi aurrez, erdietsi nahi dugun eitearen irudia ukan behar dugu gogoan. Denok irudi bera edo bertsua. Nahi dugun herri-nortasunaren eite ideala definitu behar dugu. Zein adar utzi eta zein adar moztu, zein alderi eman indar handiagoa eta zeini txikiagoa, zeini joera aldatu, gorago edo beherago egin dezan. Horixe dugu lehenbiziko lana, guztion artean burutu beharrekoa. Enborretik hasi –zein hizkuntzatan bizi behar dugun–, eta, adarretan gora eginez, egokien deritzogun herri-nortasun berria definitzea, iraganaldiko oinordekotza eta gaurko munduaren beharrak uztartuz. Hori burutuz gero, alegia, nahi dugun eitearen irudia garbi izanda, iritsi nahi dugun herri-nortasuna zer-nolakoa den doiki zehaztuta, helburu horiekiko non kokatuta gauden aztertzeko garaia izango da, horretarako behar diren erakusgarriak definitu eta neurtuz.

Ez da idazlan labur honen neurriko ataza erakusgarrien zerrenda bat egitea azterketa soziologiko zabal bat burutzeko. Batetik, esan berri dudan bezala, hobe delako lehenik eredua adostea, eta adoste hori egiteke dago. Eta, bestetik, eta aurrekoari lotuta, ataza hori taldelana delako. Liburuxka honen helburua oinarrizko planteamendu batzuk egitea da, besterik gabe, antropologiaren eta mitologiaren ikuspuntua baliatuz, baina, hortik aurrera, ereduaren definizioa parte-hartze zabalaz garatu beharreko eginkizuna da, parte-hartze zabalaz, bikaintasunaz eta profesionaltasunaz. Hein honetan, hobe soziologoei uztea erakusgarrien zerrenda osatzeko lana.

Horiek guztiak, egunen batean, talde-lan adoretsu, zoli eta etengabeari esker burutu bitartean, azken gogoeta modukoa plazaratuko dut, modu eztoi samarrean gure gizarteak aipatutako ideia eta balioen inguruan dituen jarrerak eta epaiak antzemateko.

Sailkapen-ardatz bihurtzeko duten indarraren arabera neurtzen da ideia eta balio jakin batzuen osasuna. Sailkapen-ardatza pertsonak, taldeak, erakundeak, etab. sailkatzeko edo kategorizatzeko erabiltzen da, ondorio garrantzitsuak eragiten dituen modu batean. Esate baterako, nazionalitatea sailkapen-ardatz eraginkorra da: espainiarra izan edo senegaldarra izan, ondorio garrantzitsuak ditu horrek gaurko munduan hara eta hona libre mugitu ahal izateko eta nazioarteko mugak igaro ahal izateko. Dirua ere indarrean dagoen sailkapen-ardatza da: aberats ala txiro izateak sail batean ala bestean jartzen zaitu, eta ondorio larriak ditu horrek. Arrakastak ere sailkapen-ardatz balioa du gure munduan: garaile edo galtzaile moduan sailkatzen gaitu. Ideologia politikoa ere sailkapen-ardatz sendoa da: eskuinean ala ezkerrean kokatzen gaitu. Ardatz baten arabera sailkatutakoen artean, elkartasunak eta ezinikusiak sortzen dira. Ardatza indartsua bada, elkartasun eta ezinikusiok irmoak izango dira, eta ardatza ahula bada, berriz, makalak. Futbol-taldeen inguruan, alderdi politikoen inguruan, nazionalitate eta ikurrinen inguruan elkartasun eta ezinikusi tinkoak sortu ohi dira. Gure herri-nortasun teorikoa osatzen duten ideia eta balioei sailkapen-ardatzaren testa pasarazten badiegu, haiek duten indarraren egiazko tamaina ikusiko dugu.

Enborretik hasita, euskarari helduz, zenbateko indarra du euskarak sailkapen-ardatz bihurtzeko? Zalantzarik ez, duela bizpahiru mende bazuen indarrik. Euskaldun

gehienen mundua euskaldunen eta erdaldunen artean sailkatzen zen; lehenak ziren beraiek bezalakoak, eta besteekin, berriz, ezin zuen elkar ulertu. Oinarrizko sailkapen bat zen. Euskaldunekin izango zuten konfiantza, eta erdaldunekin ez. Euskaldunaren alde eta erdaldunaren aurka egingo zuten norbaiten aldeko hautua egitera behartuz gero. Eta gaur? Gaur, euskaldun guztiak erdaldun dira halaber, eta euskaraz zerbait jakitea, hainbat hitzen hautua, eta erdara euskal hitz batzuez zipriztintzea da sailkapen-ardatz gisa funtzionatzen duena. Euskaraz ***"pixka bat, poliki-poliki"*** baino esaten ez dakien erdalduna kategoria "jatorrean" sailka daiteke gaur. Hainbeste euskaltzale biltzen dituen ezker abertzalearen baitan Juan Mari Atutxa ez da euskaltzale maitatua, ETAren aurka jardun zuen Ertzaintzaren buru ohi gorrotatua baino. Ertzain erdaltzaleei irmotasun eredugarriz aurre egin ohi dien Bittor Hidalgok, berriz, ez dakit zenbat omenaldi jaso dituen, baina ez dut uste asko izan direnik. Euskarak ez du engoitik indarrik gure gizartean sailkapen-ardatz izateko.

Adarretan gora eginez, galde diezaiokegu geure buruari gaurko gizartean zenbateko indarra duten garai bateko sailkapen-ardatz garrantzitsuek, hots, ***langilea/alferra, fina/zabarra, zintzoa/faltsua, eskuzabala/zikoitza, lagunbera/berekoia, umila/ harroa*** ardatzek, oraingo ***eskuina/ezkerra, obreroa/patroia, aberatsa/pobrea, garailea/galtzailea, ospetsua/ezezaguna*** ardatz berriagoekin erkatuta. Zenbat eta sarriago erabili eta zenbat eta ondorio larriagoz (elkartasun eta ezinikusien mailan), orduan eta sendoagoa ardatza; eta, alderantziz, zenbat eta gutxiagotan aipatu eta zenbat eta ondorio ahulagoz, orduan eta makalagoa ardatza.

Eta azken hitzak gonbit bat luzatzeko gure herri-nortasunaren eredu berriaren definizioan parte hartu nahi duten guztiei. Hezkuntzan, herrigintzan, euskalgintzan diharduzuenoi, eta, orokorrean, gai honen inguruko kezka izaki zer esana duen edonori zuzenduta: hel diezaiogun lanari!